

LAN-ISTRIPUEN ETA LANBIDE-GAIXOTASUNEN MUTUALITATEEN AURREAN IHARDUTEKO GIDALIBURUA

EGOITZAK:

Bilbo

Barrainkua, 13
Tel.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11

Donostia

Consulado, 8 behea
Tel.: 943 00 50 00
Fax: 943 00 50 01

Gasteiz

Manuel Iradier, 25
Tel.: 945 15 80 76
Fax: 945 14 10 74

ELA JUSTIZIA atal sindikala

48001 BILBAO: Buenos Aires, 6-5.^a (Justizia Jauregia)
Tel.: 944 016 524 - Luz.: 4512 - ela.b@aju.ej-gv.es

20010 DONOSTIA: Teresa de Calcuta, z/g. (Justizia Jauregia)
Tel.: 943 004 358 - Luz.: 1046 - ela.gi@aju.ej-gv.es

01008 GASTEIZ: Gasteiz Etorb., 18 (Justizia Jauregia)
Tel.: 945 004 825 - Luz.: 2400 - junta-ela@aju.ej-gv.es

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

www.ela-sindikatu.org



MUTUALITATEAK sortzeko arrazoia helburu bat betetzea zen: lan-istripuak eta gaixotasunak direla-eta eman beharreko prestazioak eta zerbitzuak eskaintzea, **langileok** Gizarte Segurantzari **ordaintzen** diogun kuotaren trukean.

"Irabazi asmorik gabeko" enpresak dira. Gure kasuan, **Mutualia** dugu orain, irabazi asmorik gabeko enpresari-elkarte bat, erantzukizun mankomunatuakoa. Elkarlanean aritzen da Gizarte Segurantzarekin osasun-zerbitzuak eta diru-prestazioak kudeatzen, eta prebentzioa sustatzen, enpresariei, langileei eta gainerako bezeroei begira.

Hala ere, osasun publikoa pribatizatzeke eman diren "*aurrera*" pausoak direla-eta, enpresa horietako gehienak negozio hutsa bihurtu dira, langileen lan-baxak oztopatzen dituztenak.

Are gehiago, enpresa hauetako batzuk bonu formulak ezartzen dituzte, hau da, ezbehartasa gutxien "erregistratuta" duten enpresek deskontu eta mozkinak lortzen dituzte.

MUTUALIAk, Justiziako langileen eskubideak murrizteko, azkenaldi honetan egin dituen burugabekeriak direla-eta, ELA-JUSTIZIAko Atal Sindikalean gidaliburuxka hau prestatu dugu, mutualitate horren gehiegikerietatik egokiro babesteko.

Oinarrizko baldintzak:

Mutualia lankidetzan aritzen da Gizarte Segurantzarekin lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakizunak estaltzen; eta horretarako, osasun-prestazioak eta diru-prestazioak kudeatzen ditu honela:

- **Osasun-arreta, lan-istripua gertatzen den edo gaixotasuna agertzen den unetik beretik.**

Arreta medikoa, farmazeutikoa edo kirurgikoa, protes- eta ortopedia-aparatuak, kirurgia plastikoa eta konpontzailea, urritasunak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, eta susperraldi-prestazioak.

- **Aldi baterako ezintasunaren diru-prestazioak.**
- Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko **ezintasun iraunkorraren, heriotzaren eta biziraupenaren diru-prestazioak.**

Zenbait kontzeptu argi izan behar dugu:

LAN-ISTRIPUA ETA LANBIDE-GAIXOTASUNA

Lan-istripua da langileak, besteren konturako lana dela-eta edo lan horren ondorioz, jasaten duen edozein lesio:

- Langileak lanaldiaren barruan eta lantokian jasaten dituen lesioak.
- Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean izandako istripua (*in itinere*).
- Enpresak, lan-kontratuaren ondorioz, agindutako jarduera bat egitera joandako langileari gertatu zaion istripua.

Lanbide-gaixotasuna da besteren konturako lanaren ondorioz hartu dena, baldin eta azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuaz onetsitako zerrendan agertzen bada, eta aipaturiko zerrendan lanbide-gaixotasun bakoitzeko adierazten diren elementuen edo substantzien eraginez sortu bada.

Lana dela-eta harrapaturiko *gaixotasunak*, aipaturiko zerrendan agertu ezean, **lan-istriputzat joko dira.**

Lanbide-gertakizunen kudeaketa INSSek edo mutualitate batek eraman dezake. (*Zenbaitetan enpresak berak eraman ahal izango du, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kudeaketan aritzeko baimenduta badago*).

Enpresariak mutualitate baten aukera egiten duenean, horren menpe geratuko da lanbide-gertakizunak kudeatzea eta zaintzea, eta beraz mutualitate horrek bere gain hartuko ditu diru-prestazioak eta osasun-prestazioak ematea.

Horrelakoetan, **enpresari** dagokio **arreta-agiria** ematea, **lan-istripuaren** kasuan.

Eta **mutualitateari**, **lanbide-gaixotasunaren** kasuan.

Nork erabakitzen du prestazioak lanbide-gertakizunengatik onartu behar diren?

Aldi baterako ezintasunaren kasuan, gertakizuna estaltzeko ardura duenak; Justizian, MUTUALIAK.

Mutualitateak diru-prestazioa emango du lan-istripu eta lanbide-gaixotasun gertakizunen ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik, baja-egunaren biharamunetik hasita, eta 12 hila-beteko epean zehar, beste 6 hilabetez ere luzatu ahal izango delarik.

Mutualitateak alta eman ahal izango du, gertakizun horiek direla-eta.

Ezintasun iraunkorraren kasuan mutualitateak proposamena egingo du, eta INSSek erabakiko.

Heriotza eta biziraupenaren kasuan, lanbide-gertakizunen ardura duenak emango du alta, INSSek edo mutualitateak. Gure langile kidegoan Mutualia da arduraduna.

Eta mutualitateak baxa eman nahi ez badigu, eta Gizarte Segurantzara bidaltzen bagaitu?

Gertakizunaren gaineko ardura zeinek daraman alde batera utzita ere, ados ez bagaude, aukera hauek ditugu:

- **Erreklamazio-orria** eskatu eta betetzea mutualitatean, gertaturikoa xehe-xehe azalduz. (38/2010 ED aintzat hartuz).
- **ELAko ordezkariekin** egotea, gertaeren berri emateko eta aholkuak jasotzeko, INSSen menpeko Ezintasunak Balioesteko Taldean edo lan-arloko epaitegian behar diren ekimenak aurkezteari begira.
- Gizarte Segurantzako **medikuarengana joatea**, gertakizun arruntengatik baxa eskatzeko. Garrantzizkoa da mutualitatean gertaturiko gorabehera guztiak kontatzea, horrela jasota gera daitezen, eta INSSetik edo epaitegitik argibiderik eskatuz gero, informazio egokia eta zehatza bidali ahal izateko.
- **INSSeko probintzia-zuzendaritzara** jotzea honelakoetan:
 - Aldi baterako ezintasunaren eta ezintasun iraunkorraren kasuetan:
 1. Prestazioa *onartu berria* bada, eta aitortu duten gertakizun arruntarekin edo profesionalarekin ez bagaude ados: aurretiazko erreklamazioa aurkeztea INSSen, ego-kitzat jotzen den gertakizuna aitortzeko eskatuz. (Hori aurretiazko betekizuna da, lan-arloko epaitegian demanda aurkeztu ahal izateko).
 2. Prestazio ekonomikoa aitortzeko expediente administratiboa oraindik ez bada erabaki: idatzia aurkeztu, gertakizunak lan izaera duela erakusten duen informazio guztiarekin. Idatzi hau INSSeko Lurralde Zuzendaritzaren aurrean aurkeztu behar

da, edozein momentutan eta gertakizunaren izaera erabakiko duen prozedura hasi ahal izateko. Ezintasunen balorazioko ekipoak proposamen irizpen bat igorriko du gertakizunaren izaera arrunta edo profesionalari buruzkoa.

- Lan-istripuaren ondoriozko *heriotzaren eta biziraupenaren* prestazioen kasuan, aurre-
tiazko erreklamazioa mutualitateari aurkeztu ahal izango dio interesdunak.

INSSen ebazpenarekin bat etorri ezean, auzibidera jo behar da, 30 eguneko epean. Horretarako, ELAren zerbitzu juridikoekin jarri behar gara harremanetan, ebazpena jakinarazten diguten bezain laster.

Nola jokatu behar dugu, mutualitateak alta ematen badigu gure borondatearen aurka?

Mutualitatean **erreklamazio-orria eskatu eta beteko** dugu.

ELAko ordezkariekin egongo gara, gertaeren berri emateko eta, behar izanez gero, zerbitzu juridikoen aholkuak jasotzeko.

Gehienez 4 egutegi-eguneko epean, ebazpena jakinarazi diguten egunaren *biharamu-netik hasita*, idatziz eskatu behar diogu INSSen Ikuskaritza Medikoari alta berraztertzeko. (1430/2009 EDan ezarritakoari jarraiki; eta, horretarako, erakunde kudeatzaileen web orrietan ikusgai egongo den *inprimaki-eredua erabiliz*). Idazki horren bidez altarekin ados ez egoteko arrazoiak azalduko ditugu, eta ezinbestez erantsiko dugu historial medikoa edo, bestela, historial hori mutualitateari eskatu izanaren idazkiaren kopia.

Desadostasun-prozedura hasten duenak **enpresari jakinarazi** behar dio desadostasun-idazkia aurkezten duen egun berean edo hurrengo egun baliodunean.

Berraztertze-prozedura hasteak berak **bertan behera utziko du alta medikoaren eragina**, eta aldi baterako ezintasunaren egoera luzatuko da prozedura izapidetzen den bitartean.

1430/2009 Errege Dekretuaren 8 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, eta gehienez 15 eguneko epean ebazpena emango da, ezintasunaren egoerari eutsiz, gertakizuna arrunta edo lanbidekoa den zehaztuz edo alta medikoa berretsiz. Alta medikoa berresten badute (*arrazoia mutualitateari emanez*), ebazpenean zehazten den datatik aurrera jasotako diru-prestazioak bidegabe jasotakotzat joko dira.

Mutualitateak alta eman diezaguke, errehabilitazioa mantentzen duen bitartean?

Horrelakoetan, prebentzio- eta babes-neurri bereziak hartuko dira, eta beraz langilearen osasun-egoerarekin bateraezinak diren eginkizunak ezin izango dizkiote agindu.

Neurri horiek hartzerik ez balego, beste baxa bat eskatu behar zaio mutualitateari.

Errehabilitazioa, horrelako kasuetan, lanaren benetako denboraren barruan egingo da.

Lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei trataera berezia ematen zaie:

- Besteren konturako langileak beti alta-egoeran daudela jotzen da ziurtzat.
- Ez da beharrezkoa **kotizazioko gutxienezko aldirik** izatea, alta-prestazioak jasotzeko eskubidea izateko.
- **Heriotzaren eta biziraupenaren** kasuan, dagokion prestazioaz gain, kalte-ordain bat onartzen da oro harreko zenbatekoan (*alargun-ordaina: pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den oinarri erregulatzaileraren 6 hileko; umezurtz-ordaina: hileko 1*).

- **Lan-osasun eta segurtasunaren neurririk eza** izatekotan, **prestazioak gehitu** ahal izango dira %30 eta %50 bitartean, larritasunaren arabera.
- Ezintasun iraunkorra izateraino heldu ez diren, baina osotasun fisikoa mugatu duten **lesio konponezinek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea** sortuko dute, lesioaren larritasunaren arabera baremo batek ezartzen duena.

Gerta daitezkeen gehiegikeriak direla-eta, jakin behar duzue:

Mutualitateek **ezin** dute **azterketa medikorik** egin gaixoaren **etxean**.

Ezin diete azpikontratatu beste enpresa batzuei **aldi baterako ezintasunaren gaineko kontrola**.

Ezin dute telefonoz daturik eskatu, dei-egilea mutualitatekoa dela esanez identifikatzen den arren; zeren legeak modu berezian babesten ditu pertsonen datu medikoak (Norberaren Datuak Babesteko Legea).

Mutualitateek iruzur kasuen aurrean ezin dute zigortu, ahalmen hau Lan Ikuskaritzak eta INSSek bakarrik daukate.

Legerian izandako aldaketak direla-eta, zenbait enpresak mutualitateen eskuetan utzi dute lanaz kanpoko istripuen edo gaixotasun arruntaren aldi baterako ezintasunen gaineko kontrola. *Ordezko idazkari judizialei, esate baterako, Justizia Ministerioak FREMAP kontratatu die, gertakizun guztiak, arruntak ere bai, kontrolatzeko.*

Esteka dokumentu honekin: "ELA exige a las empresa que no contraten a las mutuas para la gestión de las contingencias comunes".

Mutualitateak lege betetzera behartu behar ditugu. Ez diegu zapaltzen utziko oraindik geratzen zaizkigun eskubide apurrak. Ez diegu mutualitateei harrotzen utziko; erabaki kaltegarriak hartzen badituzte, erantzun behar diegu.

Ez jasan behin ere gehiago! Erreklamatu!

Izena: _____
Nombre

1.abizena: _____
1º apellido

2.abizena: _____
2º apellido

Jaioteguna: _____
Fecha nacimiento

Jaiotze herrialdea: _____
Lugar de nacimiento

Helbidea: _____
Dirección

Herria: _____
Localidad

Herrialdea: _____
Provincia

P.K.: _____
C.P.

Telefonoa: _____
Teléfono

Mugikorra: _____
Móvil

E-posta: _____
E-mail

NAN/EIZ: _____
DNI/NIE

Emakumezkoa / Mujer

Gizonezkoa / Hombre

Lantokia: _____
Empresa

Enpresaren G.S.ko zenbakia: _____ Nº Seg. Social de la empresa

Helbidea: _____
Domicilio

Herria: _____
Localidad

Lanbidea: _____
Profesión

Kategoria: _____
Categoría

Lan-hitzarmena: _____
Convenio

Banku edo Aurrezki Kutxa: _____
Banco o Caja de Ahorros

IBAN zenbakia (Banku kontua): _____ / _____
Nº IBAN (Cuenta bancaria):

Data / Fecha

Sinadura / Firma

Sindikatuak betetzeko →
A rellenar por el sindicato

Kuota mota:
Tipo de cuota

Arduraduna:
Responsable

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuaren izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzian jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, beroiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.

